

# Denboraldi ona Ermuko Eskubaloi Taldearentzat

Jubenil mailako Ermuko Eskubaloi Taldearen denboraldia bikaina izan da benetan. 12 urtetako lanaren ondoren, lehen aldiz Espainiako txapelketako finaletan jokatzeko txartela izan dute aurten. Eibarko Ipurua kiroldegian burutu zen final nagusia, Ermuarrek etxean bezala jokatu zuten beraz. 5. postua eskuratu zuten. Porriño talde Galiziarrak lehendabizi eta Maritim taldeak ondoren, Ermuko Eskubaloi Taldeari ateak itxi zizkioten.

Finalak jokatzeko, Zaragozan sailkapen fasea jokatu zuten. Zaragozako sailkapen txanda honetan lehen postua eskuratu zuen Ermuko taldeak, jokatutako hiru partiduak irabazi eta gero. Zaragozako sailkapen txanda honetarako txartela, denboraldi ederra egin ondoren eskuratu zuen eskubaloi taldeak. Eibarko Arrateren atzetik liga bikaina egin zuten, Euskadiko azpitxapelketa ez zen marka makala, eta horren ondoren lortutakoak ez dira zati batean ahaztuko.

**Bizkaiko kopa**

Baina denboraldia borobiltzeko tituloren bat beharrezkoa zen.

ESTANCO
SOLOZABAL
Torrekua z/g
48260 ERMUA (Bizkaia) Tlf. (943) 17 07 33

TXALAPARTA
TABERNA
Ezagutzen gaituzu
Badakizu non gaituzun

Bizkaiko kopa bigarren aldiz ekarri zuten Ermura hiru urteren buruan. Mungian jokatu zen Bizkaiko kopako finalean, Ermuko eskubaloi taldeak 25 eta 24 irabazi zion Kukullaga taldeari.

Bizkaiko kopa honetan Matxalen Ziarsolo jokalari onena bezala izan zen aukeratua, bigarren urtez jarraian.

Valentin Gonzalezek entrenatzen duen taldea bikain aritu da benetan. 17 jokalarik osatzen dute jubenil mailako talde hau.

Datorren urtera begira talde honek badu etorkizunik, bai Euskadiko txapelketan eta baita Bizkaiko kopan ere faboritoen artean egongo baita ziurrenik. Horrela bada, posible da Espainiako txapelketaren esperientzia berriro errepikatzea.

**Senior mailan**

Senior mailako mutilen taldeak maila galdu du. Jose Andres Garetxanaren jokalariek lesioak izan dituzte etsai nagusi denboraldi honetan, zorte txarraz aparte.

Senior mailako nesken taldeak maila arazo larregi gabe mantendu du, Mikel Martinen gidaritzapean.

Miguel Angel Sanchez



## Alboka musika eskolaren audizioa

Alboka musika eskolak audizioa burutu zuen ekainaren 16an. Ikasturte honetan ikasitakoa erakutsi zuten Ermua zineman.



BANAKETAK
Arral, 97 sl
Goitondo Goikoa Poligonoa, 3
Telefonoa (943) 17 60 75
48269 MALLABIA (Bizkaia)
171 Posta Kutxa - 48260 ERMUA (Bizkaia)
BANATZAILEA:
- LUIS CAÑAS Bodegak - LOS CURROS Bodegak - JAUME SERRA Cavak eta Ardoak
- ITURRI Kontserbak - ILLUMBE Sagardo Naturala
- BASARANA Patxarana- RAIMAT - CODORNIU Bodegak Cavak
- LAUREN,S & DANNY garbiketa produktuak

egunez egun euskeraren alde!
aek
KALTXANGO EUSKALTEGIA
✆ 17 19 40

Bizkaiko kopa bigarren aldiz ekarri zuten Ermura hiru urteren buruan. Mungian jokatu zen Bizkaiko kopako finalean, Ermuko eskubaloi taldeak 25 eta 24 irabazi zion Kukullaga taldeari.

Bizkaiko kopa honetan Matxalen Ziarsolo jokalari onena bezala izan zen aukeratua, bigarren urtez jarraian.

Valentin Gonzalezek entrenatzen duen taldea bikain aritu da benetan. 17 jokalarik osatzen dute jubenil mailako talde hau.

Datorren urtera begira talde honek badu etorkizunik, bai Euskadiko txapelketan eta baita Bizkaiko kopan ere faboritoen artean egongo baita ziurrenik. Horrela bada, posible da Espainiako txapelketaren esperientzia berriro errepikatzea.

**Senior mailan**

Senior mailako mutilen taldeak maila galdu du. Jose Andres Garetxanaren jokalariek lesioak izan dituzte etsai nagusi denboraldi honetan, zorte txarraz aparte.

Senior mailako nesken taldeak maila arazo larregi gabe mantendu du, Mikel Martinen gidaritzapean.

Miguel Angel Sanchez



# Alboka musika eskolaren audizioa

Alboka musika eskolak audizioa burutu zuen ekainaren 16an. Ikasturte honetan ikasitakoa erakutsi zuten Ermua zineman.



BANAKETAK
arral, 97 sl
Goitondo Goikoa Poligonoa, 3
Telefonoa (943) 17 60 75
48269 MALLABIA (Bizkaia)
171 Posta Kutxa - 48260 ERMUA (Bizkaia)
BANATZAILEA:
- LUIS CAÑAS Bodegak - LOS CURROS Bodegak - JAUME SERRA Cavak eta Ardoak
- ITURRI Kontserbak - ILLUMBE Sagardo Naturala
- BASARANA Patxarana- RAIMAT - CODORNIU Bodegak Cavak
- LAUREN,S & DANNY garbiketa produktuak

egunez egun euskararen alde!
aek
KALTXANGO EUSKALTEGIA
✆ 17 19 40